

La LUTA continua



conversaciones

“ Eztabaidatu, hausnartu eta ekiteko gida didaktikoak ”

La LUTA continua

conversaciones

« Eztabaidatu, hausnartu eta ekiteko gida didaktikoak »



medicushmani

« Hezkuntza askatasun praktika gisa eskaintzea edonork ikas dezakeen heziketa modu bat da. Ikaskuntza-prozesu hori errazagoa da gure bokazioaren alderdi bat sakratu dela uste dugun irakasleontzat; gure lana informazioa partekatzea ez ezik, gure ikasleen garapen intelektua-lean eta espiritualean parte hartzea ere badela uste dugu. Funtsezkoa da gure ikasleen arimak errespetatzen eta zaintzen dituen modu batean irakastea, beharrezko baldintzak sortu nahi baditugu ikaskuntzaren dimensio sakon eta intimoenak martxan jarri ahal izateko. »

Teaching to transgress bell hooks, 35. or.



aur kibi dea

AURKEZPENA_ 3

NOLA ERABILI GIDA HAU_ 3

GURE ASMOA_ 3

GURE TALDEA_ 4

HELBURU OROKORRAK_ 5

BERARIAZKO HELBURUAK_ 6

DOKUMENTALA IKUSI
AURRETIK_ 7

DOKUMENTALA IKUSI
BITARTEAN_ 11

DOKUMENTALA IKUSI
ETA GERO_ 12



MEDICUSMUNDIREn gida bat,

NORAY KOLEKTIBOAK

egina **ATELIER DE IDEAS S. COOP.**,
eta **PATRICIA RAIJENSTEIN**

ANA MAKETAren diseinua eta maketazioa.

Laguntzaileak:



Generalitat
de Catalunya



Agència Catalana
de Cooperació
al Desenvolupament



Ajuntament de
Barcelona

Argitalpen honek Espainiako Lankidetzaren laguntza jaso du, Espainiako lankidetzeta Agentziaren (AECID), Garapenerako Lankidetzarako Kataluniako Agentziaren (ACCD) eta Bartzelonako Udalaren bidez.

Edukiaren erantzukizuna medicushmanirena da bakarrik, eta ez du, nahitaez, AECIDen, ACCDren eta Bartzelonako Udalaren jarrera islatzen.

Aurkezpena

Gida honen helburua da tresna izatea bai irakasle eta ikasleentzat, bai edozein bitartekari eta taldek osatutako edonolako binomioentzat ere. Gidaren muina osatzen duen dokumentalaren gai nagusiak lantzen laguntzea da asmoa; kasu honetan, **A LUTA CONTINUA** dokumentalarenak.

Zer galdera egin? Nola interpelatu, eta nola jaso eta bideratu ekarpen bakoitza? Zer proposamenek eraman gaitzakete ekintzara? Nola eragin pentsamendu kritikoa? Gida honek bidelagun izan nahi du gai horiek eta beste asko lantzeko.

Nola erabili gida hau

Gida erabiltzeko aholku batzuk:

- Denbora-ardatz bat egingo dugu dokumentala ikustearen inguruan, eta, aldi berean, ikertu, eztabaidatu eta hausnartu edo jarduteko gaien konstelazio bat hedatuko dugu, ordena lineal bat zertan jarraitu ez dutenak. Espero dugu mapa ere zuen taldearen eta interesen arabera eraikitzea.
- Proposamen bakoitzak bere helburu zehatzak ditu, irakasle edo bideratzaille bakoitzak taldeari egoki diezazkion.
- Ez da beharrezkoa jarduera guztiak egitea, ez eta proposatutako ordenean ere; taldeari gehien komeni zaizkionak edo gustukoena aukeratzeko pentsatuta dago gida hau.
- Talde bakoitzari ondo egokitzeko, halaber, proposamen mota ugari ditu, hala nola elkarrizketan, gorputzaren erabileran... oinarrituak.

Dena den, gida hau erabiltzeko **gako nagusia** da erabiltzen duenak hasi eta buka **gozatzeko asmoa** izatea, parte hartzeko, entzuteko eta ekarpen guztiak biltzeko beharrezko denbora emanaz, gure eskemak agintzen duenari baino gehiago datorrenari erantzuteko **malgutasunaz**, eta **erantzunak baino galdera gehiago sortzeko** asmoarekin.

Gida hau pentsatu dugu zuk zeuk, irakasle edo bitartekari, aukeratu dezazun zu edo zure taldea gehien inspiratzen zaituzten bidea.

DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK

Dokumentala ikusi aurretik lantzeko **galdera eta dinamika** sorta, taldearen abiapuntua mahai gainean jartzeko aukera ematen duena.

DOKUMENTALA IKUSI BITARTEAN

ilm luzea ikusi bitartean egin daitezkeen ariketa batzuk, ikusi bitartean ikasleak aktibo egoteko eta ondorengo analisi lan kolektiboa errazteko.

DOKUMENTALA IKUSI ETA GERO

Eta niri zer? Dokumentala ikusi eta gero, parte-hartzaileak eta haien emozioak zuzenean interpelatzen ditu.

Dokumentalaren isla datuetan. Dokumentalaren gai nagusiei buruzko informazio kuantitatiboa bilatzea planteatzen du. Ikerketa, edozein iritzi sortzeko oinarri.

Bazen behin... Istoria nola kontatu zaigun aztertzeke ueña: gidoia, protagonistak, musika, fotografia, etab.

Eta orain zer? Ekintzara pasatzeko zer egin dezakegun imajinatzeke eta hausnarketa bultzatzeko proposamenak.

Gelditu egiten gara, aurrera jarraitzeko. Denbora hartzea **hausnartzeko**, bildutakoari arreta eskaintzeko eta horren inguruan pentsatzeko.

Tiraka jarraitzeko hari batzuk. Dokumentalaren gaiez harago doan material osagarria. Eta musika, bideo, liburu eta abarren zerrenda osatzen jarraitzeko gonbita, hemen: **documentales@medicusmundi.es**.

- Hemendik aurrera zuri hitz egingo dizugu zuzenean, irakasle, bideratzaille edo bitartekari zaren horri, **gida hau zuretzat baita**.

Sumatzen zen emozioak potentzial handia zuela atmosfera serioa asaldatzeko, eta hori funtsezkoa zela ikas-prozesurako.

Emozioa pizteko nahia partekatzeke asmoz goimailako eskoletako eta unibertsitateetako ikasgelan sartze hutsa transgresorea zen.

Teaching to transgress
bell hooks, 29. or.

GURE

asmoa

Pentsamendu kritikoa erraztu eta bultzatzen duen ildo pedagogikoan kokatzea gustatzen zaigu; gure burua eta ingurua zalantzan jartzea, galderaz josi eta erantzunak aurkitu ahal izateke bideak bilatzea. Ziurgabetasuna eta deserosotasuna gaintzea, ikasteko. Talde baten parte garela sentitzea maite dugu, haren ondoan sentitzea eta harekin batera hazi ahal izatea.



Gure lantaldea

Jende askoren artean erantzuten diegu helburu horiei. **Lantaldea osatzen dugu.**

Zuekin guztiokin, noski.


Bestela, ezingo genuke ezer egin.

DOKUMENTALA

Medicusmundi lantaldea

Kanaki Films lantaldea

Mozambique* lantaldea



TALDEA

ZU

Parte hartzen duen taldea

GIDA

Noray Kolektiboa
Atelier de Ideas
Patricia Raijenstein
Ana Maketa

**Joao Prerira* Gizarte Zibilari Laguntzeko Mekanismoaren (MASC) zuzendaria / *Ernesto Moisés Mazivila* Osasun Ministerioa / *Carlos Nuno Castel-Branco* Ikasketa Sozioekonomikoen Institutua (IESE) / *Joana Abrantes Manguelira* Sidaren Kontrako Kontseilu Nazionala (CNCS) / *Jorge Arroz* Mozambiqueko Mediku Elkartearen / *Fernando Regúlez* Osasun Ministerioko aholkularia / *Emanuele Capobianco* Unicef Mozambique / *Hermelinda* Pazientea, ama. Hogei kilometro ibiltzen da Osasun Zentrora iristeko / *Marco Gerritsen* Herbehereen enbaxada Mozambiken / *Daniel Kertesz* OME mozambique / *JAIME PUYOLES* Espainiako Lankidetzaren Mozambiken / *SALLY GRIFFIN* naima + nazioarteko osasun gke-en sarea en mozambiken / *ESPERANÇA*, erizaina / *JOAN BENACH* Pompeu Fabra Unibertsitatea / *SORAIA DA ESPERANÇA JOÃO MATIMISA PARTE*, amen osasuneko erizaina.

Helburu orokorrak

- Laguntza, orientazioa eta tresna pedagogikoak erraztea, **A LUTA CONTINUA** filmaren eta proposatzen dituen gaien inguruko eztabaida eta gogoeta pizteko.
- Behaketaren, pentsamenduaren eta ekintzaren arteko harremana sendotzea, osasun-eskubidea eta subiranotasun politikoarekin duen harremana eskuratu eta baliatzeko aukera aztertu eta zalantzan jartzean.
- Entzutea indartzeko bideak bilatzea, gizarte enpatikoago baten garapenean laguntzeko.
- Zalantzan jartzea kolonizazioaren eta sistema ekonomikoaren oinordeko diren egungo botere-harremanak, bai eta horiek guztiontzako osasunaren bidean dituzten ondorioak ere.
- Etorkizun partekatuari buruzko hausnarketa eragitea, osasunerako eskubideari eta nahi dugun osasun-sistemari buruzkoa.



Berariazko helburuak



DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK

- Interesa piztea dokumentalaren edukiaren inguruan hura ikusi aurretik, eta entzutea aktibatzea saioaren motor gisa.
- Aurretik ditugun ideietatik abiatuta, dokumentalean agertzen den lurraldea testuinguruan kokatzea.
- Osasunaren definizioari buruz ditugun aurreiritziak esplizitu egitea.

DOKUMENTALA IKUSI BITARTEAN

- Ikusi bitartean aktibazioa mantentzea eta gako batzuk eskuratzea talde bakoitzarentzako mapa komuna eraikitzeko dokumentaleko gai gakoengatik inguruan.

DOKUMENTALA IKUSI ETA GERO

ETA NIRI ZER?

- Dokumentala ikusteak emozionalki eragin diguna identifikatzea Eta arretea eskaintzea.
- Ikusi eta entzundakoak nola eragiten digun ulertzea.
- Entzutearen ahalegina eta potentzia esperimendatzea elkarrizketa gaitasuna ikasteko.

BAZEN BEHIN...

- Dokumentalaren ikus-entzunezko hizkuntza identifikatzea.
- Dokumentalaren sekuentzia batzuk esplizitu egitea.
- Musika esperimendatzea eta aztertzea ikusten dugunari eragiten dion elementu narratibo gisa
- Dokumentalean entzun ditugun ahotsak eta nola iristen zaizkigun esplizitu egitea.
- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antolatzea, protagonisten hitzak erabilia.

DOKUMENTALAREN ISLA DATUETAN

- Informazioa bilatu eta kontrastatzeak duen garrantzia aitortu eta sustatzea, ikasteko eta ezagutza eraikitzeko prozesuaren parte gisa.
- Informazio-iturrien objektibotasuna zalantzan jartzea.

ETA ORAIN ZER?

- Termino propioetan eta neurri zehatzen bidez osasun-sistema publikoaren funtsezko zutabeak zehaztea.
- Aukeratzeko eta zehazteko behararen eta funtsezko gaietan akordio batera iristeko behararen zailtasunak eta abantailak Esperimendatzea.
- Aurrean duguna entzuteko eta harekin negoziatzeko zailtasuna zein aukera ikusaraztea, botere-harremanak kontuan hartuta.
- Gure jarrerak eta erreakzioak esperimendatzea, arriskurik gabeko giro batean, osasun-eskubidearekin eta sarbidearekin lotutako egoeren aurrean.
- Norberaren eta besteen erreakzionatzeko eta argudiatzeko moduak identifikatzea, baita horien ondorioak ere.
- Guztiontzako Osasunerako bidea sustatzea, distopia geldiarazleak baztertuz, Alma Ata-ko Adierazpenaren bidez.

GELDITU EGITEN GARA, AURRERA JARRAITZEKO

- Saioan landutakoaren inguruan kontzientzia hartzea, bai norbanako gisa, bai talde gisa.
- Osasunaren, kolonialismoaren eta gure eta herritarren bizitzetan inplikatzeko duten horren inguruko ideia eta gogoeta berriak lotzea.
- **A LUTA CONTINUA**ren saioa elkarrekin ixtea.

TIRAKA JARRAITZEKO HARI BATZUK

- Zuekin komunikatzeko bidea aktibo mantentzea eta gida bizia izatea.
- Materiala nahi duzuen bezala lantzea eta **A LUTA CONTINUA** filmean parte hartzea.
- Gida hau are gehiago zeuenganatzea.

DOKUMENTALA *ikusia aurretik*

?

ZER DAKIZU? ZER USTE DUZU?

Ikaskuntza, eta horrekin batera ezagutza eta pentsamendua ere, gutako bakoitzak eraikitako prozesuak direla ulertzen ditugu, eta, beraz, dinamikak proposatzen dizkizuegu **A LUTA CONTINUA** ikusi **AURRETIK**, helburu bikoitzarekin.

Alde batetik, **A LUTA CONTINUA** dokumentalak lantzen dituen gaien inguruan taldeak jada badituen eta eraiki dituen eskemak eta ideiak ezagutzea, horiek izango baitira ideia berriak eraikitzeko eta zabaltzeko erabiliko dituzuen tresnak: horrela nondik abiatzen garen jakingo dugu, eta konexioak aktibatuko ditugu.

Eta, bestetik, giroa sortzea eta taldea prestatzea dokumentalari heltzeko. Horrela, hautatzen joan daiteke gaia norantz bideratu nahi duzuen edo interes orokor handiena non dagoen, geroagoko eztabaida zentratzeko: enfokatu egingo dugu.

A LUTA CONTINUA Mozambiken garatzen da.

A LUTA CONTINUA iragana, oraina eta etorkizuna da: historia da.

A LUTA CONTINUAn osasuna eta borroka jorratzen dira.

A LUTA CONTINUA kolonialismo eta independentzia istorio bat da.

A LUTA CONTINUA entzuteari buruzkoa da.

Hiru dinamika proposatzen dizkizuegu, aurretiko ideiak sor daitezen, eta iraganeko eta orainaldiko hariak azaleratu daitezen. **Ez dago irtenbide zuzen bakar bat ere; gako batzuk emango dizkizuegu.** Gaia sakon ezagutzen baduzu, aldatu proposamena nahieran. Ez baduzu gaia ezagutzen, baina dinamika proposatu baino lehen gehiago jakin nahi baduzu, **TIRAKA JARRAITZEKO HARI BATZUK** atalean erreferentzia batzuk partekatu dizkizuegu.



Luta? Baina... zer luta?

HELBURUA

Interesa piztea dokumentalaren edukiaren inguruan hura ikusi aurretik, eta entzutea aktibatzea saioaren motor gisa.

DINAMIKA

Saioa ez bada iragarri arrazoi edo erakunde jakin batengatik, areto edo ikasgelako pantailan proiektatutako dokumentalaren kartelarekin has gaitezke.

A LUTA CONTINUA, eta tituluaren azpian gurutze gorri bat, eta horren gainean ukabil bat itxita.

Kartela proiektatuta, esertzeko denbora utziko dugu. Talde osoa eroso dagoenean, izenburua ikusita zeri buruzkoa dela uste duten galdetuko diegu soilik, eta ahalik eta laburren paper batean idazteko eskatuko diegu.

Orduan, bakoitzari zenbaki bat emango diogu, eta gogoratu beharko dute nor den beraien aurreko zenbakia*.

Horrela, pertsona bakoitzak, ordenean, irakurri beharko du izenburua zeri buruzkoa dela uste duen; arau bakar gisa, bere gaia aipatu baino lehen, aurreko ikaskidearena ere posibletzat aipatu beharko du

Adibidez: A LUTA CONTINUA klase-borrokari buruz izan daiteke, nire lagunak esan bezala, edo bizitza duin baten aldeko borrokari buruz, nire ustez.

Amaitzeko, talde osoaren artean erabaki daiteke zein den gehiengoa lortu duen gaia, edo espontaneoki adosten dutena. Ondoren, dokumentala ikusteko unea izan daiteke, edo aurretiko hurrengo dinamika egiteko.

** Taldea zenbakitzeko modu hori nahasgarria edo zaila bada, zuek zenbakitu ditzakezue ikasleak, gelan eserita zaudeten bezala.*

GAKOAK

Ariketa laburra da, aurrez pentsatutako ideiak eta aurretiazko ezagutzak azkar aktibatzen dituena, eta entzutearen garrantziaren oinarriak ezartzen dituena.

Dinamika honetan garrantzitsua da argitzea une horretan ez dela egongo erantzun egokirik, ez baitute zertan dokumentalari buruz ezer jakin.



2' erantzuna pentsatzeko.

5' ideia ezberdinak entzuteko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegia izan daitezke.

Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da.

Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

• Papera eta boligrafoa.



Zein da Mozambikeko hiriburua? Kokatzeko

HELBURUA

Aurretik ditugun ideietatik abiatuta, dokumentalean agertzen den lurraldea testuinguruan kokatzea.

DINAMIKA

Ikasleak 4 taldetan banatuko ditugu.

Lehenbizi, Afrikako mapa politiko huts batetik abiatuta, Mozambike kokatu dezaten eskatuko diegu, eta talde handian herrialde edo eskualde horri buruz dituzten ezagutzak partekatuko dituzten:

Zein da beraien hizkuntza? Bertako erlijioa? Zer dakite bertako historiaz? Ezagutzen al dute bertako pertsonaia garrantzitsuren bat?

Pertsona bat arduratuko da elkarrizketa labur horretatik sortzen dena jasotzeaz. Erantzunak jaso ondoren, talde bakoitzari ikerketa labur bat egitea proposatuko diegu.

- 1) Mozambike prekoloniala, eta eskualdearen identitatea garai horretan.
- 2) Mozambike garai kolonialean.
- 3) Mozambike independentziaz gerra amaitu arte.
- 4) Mozambike gaur egun.

Errazagoa izan dadin Mozambikeko iraganeko mapa kolektibo hori marraztea, garai historiko bakoitzean honako hau nabarmentzea eska diezaiekegu: **MUGARRI HISTORIKOAK, PERTSONAIA GARRANTZITSUAK ETA GARAI BAKOITZEAN OSASUNA NOLA TRATATZEN ZEN NABARMENDU.**

**Dinamika hau etxean egin dezaten ere proposa dezakegu, aldez aurretik jakinarazita, eta, horrela, informazio pixka batekin etor daitezten saioan partekatuzko.*

GAKOAK

Zer dakizu Mozambikeri buruz? Herri horren eraikuntza sozial, ekonomiko eta estrukturalari buruz, eta kontinentearekin, Afrikarekin, duen harremanari buruz? Espazio-denbora zehatz batetik kokatu nahi dugu geure burua, ez globaletik, eta ideia lausoak zehaztu. Dakiguna edo dakigula uste duguna nabarmendu nahi dugu, Mozambikeri buruz eta Afrikako herrialdeei buruzko estereotipoak eta aurreiritziak ikusarazi, gero ikus-entzunezko proposamena hobeto entzun eta interpretatu ahal izateko. Dokumentala testuinguru baten barruan ikusten lagunduko dizue, eta aldez aurreko informazioarekin erlazionatu ahal izango duzue.



- 5' aurkezteko.
- 20' Informazioa bilatzeko.
- 15' partekatzeko eta eztabaidatzeko.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiago izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Jarduera ikasgelan egingo bada, Afrikako mapa mutua politikoaren paperezko kopia adina talde beharko ditugu, edo, gutxienez, ikasgelako pantailan proiektatzeko aukera izango dugu, talde osoak ikusi dezan. Halaber, beharrezkoa izango da parte-hartzaileek edo ikasgelak wifi konexioa eta informazioa bilatzeko gailu mugikorrek izatea.

HELBURUA

Osasunaren definizioari buruz ditugun aurreiritziak esplizitu egitea.

DINAMIKA

Taldeko pertsona bakoitzari eskatuko diogu paper batean idatz dezala osasuna zer den berarentzat: zer leku duen bere bizitzan, zer baliabide eskaintzen dizkion, nola artatzen duten bere osasuna edo beste batzuen, etab. Denbora tarte bat utziko diegu. Denek bukatu dutenean, papera tolestu, eta ausaz trukatu dituzte. Oraindik ez dituzte irekiko.

Jarraian, beraiantzat *publiko* kontzeptuak —*pribatuaren kontrako* zentzuarekin, ez *audientzia* zentzuarekin ;)— duen esanahia beste paper batean idazteko eskatuko diegu, publiko diren zer baliabide erabiltzen duten, zaintzen duten ala ez, nola uste duten besteek ikusten dutela, etab. Beste denbora tarte bat uzten diegu. Denek bukatu dutenean, papera tolestuko dute, eta berriro trukatu dituzte ausaz, lehengo kide berarekin ez trukatzeko saiatur.

Hala, taldeko pertsona bakoitzak osasunaren eta publikoaren definizio bana du, eta bi deskribapen horiek beren 'aurkako perfektu' bihurtu beharko dituzte, antonimoen bidez edo erabat aldatuz osasunaren eta publikoaren deskribapen edo definizio gisa jaso dutenaren funtzioa, bakar batean elkartuta. Horrela, fikziozko objektu bat edo ia ezinezko zerbait lortuko dugu. Ala ez?

Osasun publikoaren antidefinizio horiek ozen irakurtzeko eskatuko diegu. Entzungo ditugu, eta talde eztabaida baten bidez, arbelean jasotzen joan gara taldearentzako osasun eta osasun publiko kontzeptuen inguruan adierazgarriena dena.

Adibidez, norbaitek kide batengandik jaso badu osasuna ezinbestekoa dela, eta beste kide batengandik publikoa guztion artean zaintzen duguna dela. Ondorioz, osasun publikoa, inork ere zaintzen ez duen garrantzirik gabeko hori izango litzateke;).

GAKOAK

Proposamenaren helburua da norberaren eta taldeko gainerako kideen iritzien aurrean epairik ez aktibatzea, eta aurkakoak eta umorea lupa gisa baliatzea benetan axola zaiguna ikusteko..



- 5' Osasuna definitzea + kideekin partekatzea..
- 10' Publikoa definitzea + kideekin partekatzea.
- 10' Antonimo bihurtzea edo antideskribapena egitea.
- 15-20' 'aurkako perfektua'-k irakurtzea eta ezaugarri komunak partekatzea.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke.
Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da.
Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Idazteko materiala.

**Gutxienekoa lantzeko...**

Edozein arrazoi dela eta, proposatutako dinamika bakar bat ere ezin izan baduzue egin, proposatzen dizugu **DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK**, gutxienez, gogoeta hau planteatzea taldeari:

**Zer esan nahi du zuretzat GUZTIONTZAKO OSASUNAK?
Noren eta zeren arabera dela uste duzu?
Eta... Zer esan nahi du zuretzat ENTZUTEAK**

Banatu bi post-it taldekide bakoitzari eta, papertxoak eskaintzen dien espazio txikian, idatz dezatela zein izango liratekeen haien erantzunak une horretan bertan. Ondo gorde itzazu. Horiek izango dira aldamiok ;)



DOKUMENTALA *ikusi bitartean*



ZERK HARRAPATU ZAITU?

Taldea kokatu egingo da, eroso jarriko da, isildu egingo da eta argiak itzali eta pantailako magiak gurea bakarrik ez den istorio batera eraman aurretik, partekatutako istorio batera, filma ikusi bitartean zeregin bat eskatzeko proposatzen dizuegu.

HELBURUA

Ikusi bitartean aktibazioa mantentzea eta gako batzuk eskuratzea talde bakoitzarentzako mapa komuna eraikitzeko dokumentaleko gai gakoen inguruan.

DINAMIKA

Papera eta boligrafoa eskuan, honakoa jaso dezatela:

- Dokumentalean gehien nabarmendu diren esaldiak edo kontzeptuak (gutxienez bi, parte-hartzaile bakoitzeko), ahalik eta modu literalenean, horiek aipatzen dituztenen hitzekin.
- LHarrigarrienak izan zaizkien datu edo informazio objektiboak (era berean, parte-hartzaile bakoitzak gutxienez bi).

Jasotako esaldiak eta datuak gordeko dituzte, aurrerago guztion artean partekatzeko.



DOKUMENTALA *ikusi eta gero*



ETA NIRI ZER?

Dokumentala ikusi eta berehala, barrura begiratzeko eta sentitutako emozioak identifikatzeko unea da. Ikusitakoak eta entzundakoak nola interpelatu gaituen jakiteko unea, dokumentaleko protagonistek deskribatutako egoerek gurekin zerikusirik duten kuestionatzeko unea.

Dinamikak

1)

Loturarik al du zurekin?

HELBURUA

- Dokumentala ikusteak emozionalki eragin diguna identifikatzea eta arreta eskaintzea.
- Ikusi eta entzundakoak nola eragiten digun ulertzea.

DINAMIKA

Galdera horiek banaka edo taldeka erantzun daitezke, talde txikietan edo talde osoan. Guztiak erantzun daitezke, batzuk aukeratu edo bakar bat. Baliteke galdera horiek inspirazio iturri izatea eta beste galdera batzuk eragitea. Proposamen guztia irekia da irakasle edo bitartekari gisa komenigarrien ikusten duzun moduan egiteko, zure beharrei eta taldearen beharrei erantzuteko..

- **Identifikatuta sentitu zara uneren batean?**
- **Lehendik ez zenekien zerbait deskubritu duzu?**
- **Zer iruditu zaizue itxaropentsuena?**
- **Zein unetan sentitu duzue amorru gehien?**
- **Zer iruditu zaizu egokiena?**
- **Dokumentalaren zein une nabarmenduko zenuke eta zergatik? Zerk eragin dizu inpaktu gehien?**
- **Uste duzue dokumentalean kontatutako istorioak bizi zareten herrialdean gerta daitezkeela? Nola?**
- **Dokumentala ikusi ondoren, hurbiltzen edo urruntzen zaituzte...?**

Gustura jakingo genituzke erantzunak. Partekatu nahi izanez gero, honako helbide honetara bidal ditzakezue: documentales@medicusmundi.es.

GAKOAK

Goiko galderak norberaren edo oso hurbilekoen esperientziekin lot daitezke, eta baliteke parte-hartzailearen batek horiek partekatze beharra sentitzea. Intentsitate emozional handiko uneetan laguntzeko, taldeak kontu handiz jokatu behar du: errespetuz entzun behar du, hitz egiteko denbora eskaini behar du, etenik egin gabe eta iritzirik eman gabe. Norbait deserroso sentitzen bada, komenigarria izan daiteke minutu batzuek ikasgelatik ateratzeko aukera eskaintzea, eta interesgarria da aukera hori saioa hasi aurretik eskaintzea. Era berean, oso garrantzitsua da zuk, irakasle edo bideratzaile zaren horrek, dinamika hori gauzatzea, baldin eta proposamenarekin benetan eroso bazaude eta, nahi izanez gero, proposamenean parte hartzea zuk ere erantzunez..



- 5' Dinamika aurkeztea.
- 10'-15' Galdetzea eta entzutea.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Espazio zabal bat, altzari askorik gabekoa.

Entzuten didazu, baina... Arretaz?

OBJETIVO

- Entzutearen ahalegina eta potentzia esperimentatzea elkarrizketa gaitasuna ikasteko.

DINAMIKA

A LUTA CONTINUAn gehien nabarmentzen den jarreretako bat entzute falta da: emailleek ez diete Mozambikeko herritarrei entzuten, GKEek ez diete gobernuei entzuten, eta ez dute elkar entzuten hobeto antolatu ahal izateko. Ez zaie entzuten ez pazienteei, ez haurtxoei, ez zaie entzuten emakume boteretsuei. Arrotz egiten al zaigu hori? Esperimentatuko egingo dugu.

ENTZUTEA saioaren edozein unetan landu beharreko zeharkako gaietako bat da.

1) HITZ EGITEN DUENA. 5 minututan dokumentala zeri buruzkoa den kontatuko du, zer iruditzen zaion garrantzitsuena, zer gutxiago, zerekin dagoen ados, zerekin ez, etab.

2) ENTZUTEN DUENA. 5 minutu horietan entzun ahal izango du, eta soilik esku hartu ahal izango du uneren batean bere lankideari hitz egiten lagunduko dion zerbait galde diezaioke-ela uste badu.

3) BEHATZEN DUENA. Ezin du ezertxo ere esan, ezta gorputzez ere, alde batean kokatuko da, eta ikusten duenari buruzko oharrak hartuko ditu gero partekatzeko.

Idea batzuk partekatu dizkizuegu «Gakoak» atalean.

GAKOAK

Gakoa da ez dagoela entzutea eskatzen ez duen gakorik. Entzutea praktikan jartzea eskatzen duen edozein ariketa proposa dezakezue, eta **A LUTA CONTINUA**rekin erlazionatu.

Entzute-arau batzuk atera ditzakezue saioan zehar. Adibidez, eztabaidan ezingo dela ezer esan hitz egiten ari den pertsonak bukatu arte. Norbaitek galderaren edo esku-hartzeren bat badu paper batean apuntatuko du, bere txanda denean esan dezan. Edo norbaitek hitza hartzen duenean, hitz egin duen azken pertsonaren hitzak sintetizatu beharko ditu bere argudioa azaltzeko. Horrela, pertsonen arteko entzute aktiboa sustatzen da, eta ez soilik norberak nahi duen iritzia azaltzea.



5' dinamika aurkeztea.

15' praktika.

10' partekatzea eta entzute-arauak adostea.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Espazio zabal bat, altzari askorik gabekoa.
- Idazteko materiala.



Dokumentalaren isla datuetan

Gure aurretiko ideiak eta gai honek pertsona bakoitzari dakarkiguna kontuan hartuta, osasun publikoaren eta ekonomiaren, osasun horretarako eskubidearen eta subiranotasun politikoaren arteko harremanetan sakondu ahal izateko, entzutearen eta eskatzearen artean edo utopiaren eta zuzenbidearen artean, beharrezkoa da guk ikertzea, denbora bat eskaintzea informazioa bilatzeko eta testuingurua zabaltzeko, balorazio eta diagnostiko egokiagoa egin ahal izateko.

Diagnostikoak, ondoren, gure testuinguruetako egoera eraldatzen lagunduko duten ekintzak egiteko eta proposatzeko aukera emango digu. Gure subiranotasuna eta gure eskubideak ezagutzeko eta zalantzan jartzeko.

Bi ikerketa txiki irekitzea proposatzen dizuegu. Izan daiteke bakar bat egitea, gehien interesatzen dena edo ideia gutxien duena, edo bi taldetan banatzea ikasgelan, eta gero ikertutakoa partekatzea.

HELBURUAK

- **Informazioa bilatu eta kontrastatzeak duen garrantzia aitortu eta sustatzea, ikasteko eta ezagutza eraikitzekeo prozesuaren parte gisa.**
- **Informazio-iturrien objektibotasuna zalantzan jartzea.**

Proposatutako hiru ildoetako edozeinetan, bilaketa-prozesua bezain garrantzitsua da lor daitekeen informazioa eta datuak.

Horregatik, honako galdera hauek ere egitea gomendatzen dugu:

- **Nondik jaso dugu informazio hori? Nork eman ditu datu horiek? Nork/nortzuk jaso eta argitaratu du(te)?**
- **Zer parametro erabili ditugu informazio hori biltzeko?**
- **Zailtasunik izan al duzu informazioa aurkitzeko? Zein motatakoak izan dira zailtasun horiek (hizkuntza, fidagarritasuna, informatzaileen joera, eskuragarritasuna, etab.)? Zer izan da errazagoa?**



DINAMIKA

Samora Machelek 1975ean Mozambikeren independentzia aldarrikatu zuenean hasten da dokumentala. Bi urteko emantzipazio-pozaren ondoren, 15 urteko gerra zibila hasi zen lurralde berean, herrialdea suntsituta utzi zuena. Zer gertatu zen Portugalgo kolonia horren bi urteko independentziaren ondoren mozambiketarrak elkarren arteko gerran sar zitezen? Dokumentalaren helburua da ezagutaraztea ordutik nola berreraikitzen ari diren gizarte gisa, eta zer garrantzi duen osasunak horretan. Hala ere, oso adierazgarria izan daiteke dokumentalean kontuan hartzen ez den garai hori elkarrekin ikertzea, berreraikuntza garaian gertatu zena ezagutzeko, planetako beste leku batzuetan gertatzen ari zenarekin erlazionatzeko, eta gaur egun gertatzen dena ulertzen laguntzen duen ikusteko.

Banatu gela 4 taldetan. Talde horietako bakoitza arduratuko da 1977-1990 aldian eremu geografiko hauetako mugarri historiko nagusiak ikertzeaz:

- 1) Mozambique.
- 2) Europa.
- 3) Hego Amerika.
- 4) AEB.

Zer gertatu zen garai hartan? Nork gidatzen zituen lurralde horiek garai hartan (nazioak, aliantzak, aukera politikoak)? Ba al zegoen gerrarik? Nortzuen artekoak? Nortzuk aliatu ziren? Zein zen eremu zehatz horretako aberastasun nagusia?

Era berean, zure ustez, zer lotura dute aipatutako gertaerek Mozambiken gertatutakoarekin, **A LUTA CONTINUA** filmean kontaktzen duten bezala? Eta, zer lotura du orduan eremu horretan gertatutakoak une honetako egoera geopolitikoarekin, baten bat baldin badu?

**Ahaztu gabe, galdera hauek erantzutean: Non bildu duzue informazio hori? Zein hedabidetan? Zaila izan da ala ez?*

Talde bakoitza galdera horiei erantzuten saiatuko da, eta dokumentu batean jasoko ditu. Ondoren, ikerketa horiek partekatuko dituzte (eremu geografiko bakoitzeko bozeramaile baten bidez izan daiteke, galderei banan-banan erantzunez) eta «mapa» handi batean islatzen saiatuko dira. Azken galdera, lehenbizi, bakoitzak bere aldetik erantzungo, eta, azkenean, taldearen erantzuna bateratzen saiatuko dira, adostasun bidez, kontatutako guztiak eta egungo egoerak loturarik ba ote duten erantzuteko.

GAKOAK

Dinamika honetan funtsezkoak izango dira elkarlana, bai talde bakoitzaren barruan bai talde handian partekatzean, eta entzuteko beharra, elkar ulertzeko eta adostasunera iristeko. Izan ere, planetako hainbat lekutako begiradei esker, argitu ahal izango dute zer harreman mota dauden eta kaleidoskopio handiaren zein tokitan dagoen Mozambique, baita gaur egun ere nola eragiten duen guztiak, bertan zein gainerako lurraldeetan.



- 5' Dinamika aurkeztea / taldeak antolatzea.
- 20' Taldekako ikerketa eta dokumentazioa.
- 15' Partekatzea eta adostea.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Wifi konexioa eta informazioa bilatzeko gailuak izatea.
- Arbela edo, informazioa bestela islatzea erabakitzen baduzue, paper jarraia.

DINAMIKA

A LUTA CONTINUA filmean osasun publikoko sistema bat antolatzeke, kudeatzeko eta finantzatzeko zailtasunak erakusten dizkigute. Baita osasun hori guztiongana iristeko borroka ere, beste interes ekonomiko asko kontuan hartuta, zeinak une batzuetan osasunaren gainetik daudela dirudien.

Soilik beste lurralde batzuetan duten zailtasun bat da? Gure osasun-sistema ikertzen eta ezagutzen saiatuko gara, urruneko lurralde bat balitz bezala. Zenbat dakigu Espainiako osasun-sistemari buruz? Eta gure Autonomia Erkidegokoaz? Eta gure herrikoaz?

Osasun-sistemaren mapa bat egiten saiatuko gara; Internet edo telefono bidez hitzordua eskatzeko bidea osorik ikusiko dugu, gure lehen mailako arretako medikuak artatu gaitzan.

Gela 4 edo 5 taldetan banatuko dugu, ondoren datuak kontrastatu ahal izateko, talde osoaren artean informazioa egiazta dezagun eta osatuagoa eta fidagarriagoa izan dadin. Talde bakoitza antolatu egingo da 3 ardatz ikertzeko:

- 1) Nola finantzatzen den gure osasun-sistema: nondik ateratzen den zirujauaren soldata, X izpien gailua, gure osasun-zentroko argiak eta ohatilak ordaintzeko beharrezko dirua, guk ordaintzen ez baditugu? Zenbat diru behar da osasun-sistema horri eusteko?
- 2) Nola banatzen da gure osasun-sistemara zuzendutako dirua? Zertara bideratzen da aurrekontu horietako diru gehiena? Zenbat diru bideratzen da gai bakoitzera?
- 3) Nork hartzen ditu erabaki horiek: nola antolatzen da hierarkikoki osasun-sistema? Saiatu organigrama bat ezartzen.

Ikerketa-denboraren ondoren, partekatu egingo ditugu informazioa bera zein informazioa bilatzeko zailtasunak edo erraztasunak, eta hura argitaratu edo eskura jarri diguten hedabideak zeintzuk izan diren.

Zer lotura dauka horrek Mozambiqueko osasun-sistemarekin dokumentalean agertzen den bezala? Eta ezagutzen dituzuen beste osasun-sistema batzuekin? Zer informaziok harritu zaituzte gehien?

GAKOAK

Gaia zabala denez, zuen taldeen interesen eta aurretiko ezagutzen arabera mugatu dezakezue, eta talde osoak hiru ardatzetako bat bakarrik aztertu. Era berean, oso adierazgarria izan daiteke zehaztea, eta bakarrik aztertzea osasun-zentro jakin baten edo zuen herrikoaren finantzaketa eta organigrama. Azken konparazioa autonomia erkidegoen artean egin daiteke ere, edo hiri baten eta landa-eremu baten artean. Ez ahaztu osasun-sistema pribatuko datuekin ere kontrastatu daitekeela. Nolanahi ere, gure balorazioa eta osasunaren inguruko eztabaida aberasteko informazioa da.



- 5' Dinamika aurkeztea eta taldeak antolatzea.
- 20'-25' Talde lana eta ikerketa.
- 15' Talde lana eta ikerketa eta partekatzea.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Wifi konexioa eta informazioa bilatzeko gailuak izatea.
- Informazioa partekatzeko aukeratu duzuen materiala, hala uste baduzue.
- Paper jarraia.

Bazen behin...

Bazen behin... Horrela hasten dira istorio batzuk, ezta? Gure asmoa da arreta jartzea istorio hau, dokumental hau, kontatu diguten moduari: gidoia, musika, protagonistak, eszenak eta sekuentziak, lekuak... Zergatik protagonista horiek eta ez beste batzuk? Zergatik musika hori? Zergatik eszena horiek?

HELBURUAK

- Dokumentalaren ikus-entzunezko hizkuntza identifikatzea.
- Dokumentalaren sekuentzia batzuk esplizitu egitea.



Entzuten al duzu... musika?

HELBURUA

Musika esperimentatzea eta aztertzea ikusten dugunari eragiten dion elementu narratibo gisa.

DINAMIKA

Nola aldatzen da ikusten duguna, entzuten dugunaren bidez? Berriro ere, pentsamendu kritikotik entzute ariketara hurbildu nahi izan dugu. Oraingoan, iritziak eta hitzak aktiboki entzuteaz gain, gorputz osoarekin eta begiekin musika entzutea proposatzen dizuegu. Dokumentaleko eszena batzuetan musika desberdina jartzea izango da proposamena. Zer gertatuko da?

Talde handia gutxienez 4 taldetan banatuko dugu. Dokumentaleko 2 eszena hartzea proposatzen dizuegu: 2 taldek eszena berberarekin lan egingo dute, eta beste 2ek bestearekin. Horrela, **A LUTA CONTINUA**ko musikarekiko dagoen aldea ez ezik, esplizitatu egingo da ere ikaskideek hautatutako musikaren arteko aldea.

- 1) Hasteko, aukeratutako eszena soinurik gabe ikusiko dute berriro.
- 2) Jarraian berriro ikusiko dute, musikari arreta berezia jarritz.
- 3) Taldean komentatuko dute: zer kontatzen dien eszena mutuak, eta zer gehitzen, aldatzen edo nabarmentzen duen musikak. Beraiei dagokienez: zer nabarmendu edo kontatu nahiko lukete eszena horretan? Taldearen erantzunaren arabera, abesti edo melodia bat bilatuko dute eszena horretarako.
- 4) Talde handira itzuliko gara, eta talde bakoitzak bere eszena pantailan jarriko du, soinua mutu eta aukeratutako musika ipinita.
- 5) Denon arteko eztabaida eta elkarren artean entzutea bideratuko dugu: zer kontatu nahi digu musikak dokumentalean? Zein ideiarekin lotzen da eszena batean eta bestean? Zergatik aukeratu du talde bakoitzak beste musika hori? Zer transmititu die aldaketa horrek gainerako ikaskideei? Antzeko musikak aukeratu dituzte eszena berbera tokatu zaien bi taldeek? Zergatik?

GAKOAK

Zuen taldearentzat interesgarrienak iruditzen zaizkizuen eszenak aukera ditzakezue. Gakoa da, oraindik ere, mundua ulertzeko entzuteak duen garrantzia azpimarratzea, kasu honetan, musika erdigunean dugula. Izan ere, mezuak ez dira beti argitasun berarekin iristen, ez dute esanahi bera guztiontzat, eta musikak aukera ematen digu hori lasaiago bizitzeko eta horretaz hitz egiteko.

Hona hemen bereziki iradokitzaileak izan daitezkeen eszena pare bat:

- *Hermelindak haurtxo bat darama eta beste emakume bat du ondoan, beste haur bat ere badabil haien artean, soroen erdian. Lehen plano batzuk ikusten ditugu, beste batzuk zabalagoak. Ibilian-ibilian doaz, osasun-zentrora. [Minutajea: 16'50" - 18'].*
- *Emakume batzuk hizketan ari dira, horietako bat lurrean eserita dago, furgoneta batean sartzen dira, eta Mozambiqueko paisaia barrena bidaiatzen dute gauez. Iritsi dira osasun-zentrora. Ilunpetan, emakume bat ospitaleko ohe batean dago, etzanda. [Minutajea: 22'50" - 23'50"].*



- 5' Dinamika azaltzea eta taldeak antolatzea.
- 15' Originala entzun eta ikustea eta melodia berria aukeratzea.
- 15' Musika berriak dituzten eszenak eta aldaketen inguruko eztabaida..

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Wifi konexioa duten gailu eramangarri bat talde bakoitzeko, eta bluetooth bidezko bozgorailu bat melodia aldaketa gehiago nabarmentzeko.

HELBURUA

- Dokumentalean entzun ditugun ahotsak eta nola iristen zaizkigun esplizitu egitea.

DINAMIKA

A LUTA CONTINUA filma lehen pertsonan kontatzen digute protagonistetako batzuek, elkarrizketen bidez. Horretarako, kamerari zuzenean hitz egiten diote, eta ahots, rol, iritzi eta elkarrizketa guztien artean, kaleidoskopio handi baten moduan, Mozambikeko osasun-sistemaren panorama osatzen da, narratzaile orojakilerik gabe.

Banatu talde handia 4-5 taldetan gutxienez, analisia errazteko. Dokumentala berriro ikustea proposatzen dizuegu, elkarrizketetako ahotsen eta protagonisten bila. Helburua da dokumentala talde txikietan berrikustea, elkarrizketatuak izan diren pertsonak, haien karguak, rolak eta iritziak aztertzea eta hori guztia jasoko duen mapa bat egitea.

Talde bakoitzak paper jarraitua izango du berriz deskubritzen dutena islatzeko, ikerketa-talde baten panel bat balitz bezala: Esku hartzen duten pertsonen mapa zehaztu behar du, baita gako gisa zer ekarpen egiten duten eta haien artean zer lotura dagoen den ere.

Galdera bati erantzungo diote, ahaztu gabe: Ba al dago kanpoan geratu direla uste duzun pertsona edo erakunderik? Nor entzun nahiko zenukete? Zer hutsune beteko lukete ahots horiek?

GAKOAK

Ohartzea edozein egoera begirada eta ahotsen kaleidoskopio baten moduan osatzen dela, **A LUTA CONTINUA** filmean bezala, non zuzenean euren hitzen bidez aurkezten dizkiguten. Horrela, bidaia egin dezakegu hitz egiten dutenen posizioetan barrena, gure posiziora itzultzean hura asko aberastuz. Funtsezkoa da esplizituki adieraztea elkarrizketen eta lehen pertsonako ahotsen balioa, egoera berari buruzko iritzi edo irizpide desberdinak entzuteko, are gehiago OSASUNA bezain konplexua den gai bati buruz.

Bidaia horretan isiluneak ere egongo dira beti: hitz egin ezin edo nahi ez duenak ere zerbait esaten du.



- 5'** Dinamika aurkeztea eta azaltzea eta talde txikietan antolatzea.
- 25'** Dokumentala berriro ikustea, protagonistak, iritziak eta loturak mapan islatzea.
- 5-10'** Partekatzea: nortzuk dauden eta nortzuk falta diren.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Talde txikietan dokumentala ikusteko gailu eramangarriak.
- Paper jarraia.
- Hainbat koloretako errotuladoreak.

HELBURUA

- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antolatzea, protagonisten hitzak erabilia.
- Argudioak garatzea dokumentalaren gai nagusien inguruan egon daitezkeen jarrerak ulertzeko: osasunerako eskubidea, kolonialismoa eta horrek egungo harremanetan duen eragina eta garapen sozioekonomikoak osasun-sistemetan dituen ondorioak.

DINAMIKA

Dokumentaleko esaldien hautaketa batetik abiatuta, hainbat talde egitea proposatzen dizuegu, parte-hartzaile kopuruaren arabera, banaka lan egingo duten 3 edo 4 talde.

Orain unea da dokumentala ikusi bitartean bildutako esaldi horiek, arreta gehien erakarri dietenak, partekatzeke. Papelografo batean edo ikasgelako arbelean, halakorik badago, banan-banan idatziko dituzte. Horrela, taldeak berak **A LUTA CONTINUA** filmetik nabarmentzen duena ere aztertuko dugu. Seguru asko batzuk errepikatu egingo dira, eta agian irakasle gisa interesatzen zaizun esaldiren bat ez da agertuko.

Talde bakoitzari esaldi pare bat banatu, beraiek aukeratu edo saioaren dinamizatzailerok banatu itzazue, eta talde horiek txikiagoetan banatu. Orduan, egokitu zaien esaldi bakoitzaren aldeko bi argudio eta kontrako beste bi idazteko eskatuko zaie. Amaitzean, talde handira itzultzean, esaldi bakoitzaren inguruan sortutako argudioak partekatuko dituzte. Zuk ere idatzi ditzakezu zureak.

- **A aukera:** bi esaldi berdina izatea talde guztientzat. Argudioak partekatzean, antzekotasunak edo desberdintasunak bilatu ahal izango dira, talde osoak esaldi berberei buruz hausnartu baitu. Proposamen honek talde-koherentsia erraztuko du.
- **A aukera:** talde bakoitzari 2 esaldi emango zaizkio, talde bakoitzari desberdinak. Argudioak partekatzean, aldeko edo kontrako jarreraren artean eztabaida daiteke, edo esaldi bakoitzari argudio desberdinak eman. Proposamen honek taldearen aniztasunari arreta eskaintzea errazten du.

ESALDIK

Ikasgelan lantzeko interesgarriak diren esaldiak edo ideiak ateratzen ez badira, jarraian partekatu egin ditugu A LUTA CONTINUA dokumentalean gure ustez funtsezkoak diren eta hainbat gakoren inguruan talde lan handia erraztu dezaketenen esaldi batzuk.

- «**Kolonialismoa** gizateriaren aurkako krimena da»
- «Ez dago giza kolonialismorik»
- «Ez dago esplotatzailea ez den kolonialismorik»
- «Portugal, Europako herrialde pobreenetako bat da. Afrikarik gabe, nazio txiki bat da. Afrikarekin, potentzia handia gara»
- «**Osasuna** negozio amaigabea da»
- «Herritar bakoitza osasun-eragile bat zen»
- «Bizitza bat salbatzea ohore bat da»
- «Ordaindu dezaketenek sektore pribatura jotzen dute»
- «**Kanpoko laguntzak** ez du hainbeste laguntzen»
- «**Lankidetzaz-bazkideek** eginkizun bat dute: gobernuaren osagarri izatea. Egun batean alde egiten badute, gobernuak jakingo du zeintzuk diren finantza-eskariak».
- «Ulertzen dut funtsekin hona datorrenaren jarrera, eta tira, egin behar dena agintzeko tentazioa oso handia da. Denoi gertatzen zaigu, ezta? Nik jarriko dut dirua, horrela egitea gustatuko litzaidake, ezta? Nik jartzen dudalako»


«Nola ordainduko du Mozambikek bertakoko osasuna?»
 «Nork zehazten ditu **garapen-lehentasunak** herrialde horretan?» «Horixe da Mozambikeren lehentasuna. Eta bestela, zuen **dirua** bueltan eraman dezakezue»
 «Munduko herrialderik pobreenetako batean gaude»
 «Herrialde bateko **ekonomia** ezin da meatze-baliabideen mende bakarrik egon»
 «Ez dezagun utzi nazioaren agintea multinazional handien esku»
 «Mozambikeko ekonomia azkartu egin da eta ekonomia horrek pobrezia murrizteko eraginkortasuna nabarmen jaitsi da»

GAKOAK

Hitz batzuk edo besteak nabarmentzearekin batera, sortu diren ideiekin konstelazio bat egin dezakezue taldearekin: **ideia nagusiak eta bigarren mailakoak**.

Dokumental honen ezaugarrietako bat da gai desberdinak eta oso garrantzitsuak irekitzen dituela, leku askotara eramaten gaituztenak. Horietako batzuk gida honetan bereziki nabarmendu baditugu ere, jorratuko dituzuen gaiak aukeratu aurretik, konstelazio hau egin dezakezue zuen taldearentzat garrantzitsuenak diren gaiekin, horietatik eratortzen direnekin eta baita haien arteko konexioekin ere.

Esaldi horiekin, egitura edo antolaketa posible bat eskaintzen dizuegu, lagun diezazuen gehiago nabarmentzea interesatzen zaizuen puntura iristen. Mapa hau ere hutsik utzi dugu, gogoeta egiteko ariketa kolektiboa izan daitekeelako eta talde bakoitzak gida honekin agian iritsi ez garen lekuetan argia jarri dezakeelako. Hala ere, beti izan dezakezue gure eskemako esaldien eta gaien konstelazioa, inspirazio-iturri gisa.



- 5' Dinamika aurkeztea.
- 15' Taldeka hausnartzea eta mapa kontzeptuala sortzea.
- 15' Partekatzea eta eztabaida.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Papelografoa, pantaila edo arbela esaldiak erakusteko.
- Idazteko materiala.

Eta orain zer?

Edozein gairi buruz sakontzeko, gorputzean ere sentitu behar dugu: beharrezkoa da ekitea.

Eta orain zer? galdera planteatuz lotu eta integratu egin nahi dugu behatu eta hausnartutako guztia gure jarduerekin eta horiek ematen duten aukerekin.



Zein da eraiki nahi dugun osasun-sistema eredu?

Mozambiken, osasunera eta osasun-sistemara bideratutako diruaren %80 nazioarteko lan-kidetzaren esku dago. Eraiki nahi dutenaz ideiarik partekatu ez duten erakunde eta organismoak dira. Egin dezakezue zuek?

HELBURUA

- Termino propioetan eta neurri zehatzen bidez osasun-sistema publikoaren zutabeak zehaztea.
- Aukeratzeko eta zehazteko beharraren eta funtsezko gaietan akordio batera iristeko behar-raren zailtasunak eta printzipioak esperimentatzea.

DINAMIKA

Eskatuko diegu paper batean idatz ditzatela gure lurraldean osasun-sistema publiko bat eraikitzeko **gako diren 3 gai** (aurrekontua nora bideratuko luketen, beharrian desberdinetarako zer portzentaje estimatzen duten, zer ordenatan exekutatuko luketen, etab.). **3 minutu** baino ez dituzte, gehien baloratzen dutena lehenetsiz.

Denbora hori igarotakoan, bikoteka jarriko dira. Lehenbizi batek hitz egingo du, bere lehen-tasunak azaldu eta argudiatuz; besteak, berriz, entzun egingo du (argipenik behar badu hitz egingo du soilik). Horretarako **2 minutu** baino ez. Rola aldatuko dute; hitz egiten zuenak entzun baino ez du egingo, eta alderantziz. Horretarako beste **2 minutu**.

Isiltasunean elkar entzun ondoren, **4 minutu** dituzte 3 lehentasunak eta portzentajeak biltzen dituen zerrenda bakar bat adosteko.

Amaitutakoan, bikote hori beste batekin elkartuko da, eta dinamika errepikatuko dute, gutxienez 16 pertsonako talde bat egin arte eta lehentasunen zerrenda bakar bat osatu arte, talde handiarekin partekatuko dutena.

Kuestiona ditzakegu, eztabaidatzeko eta dinamika laguntzeko: Zer lehentasun galdu dituzue negoziazioan? Entzute- eta argudiatze-txanden ondoren, Zer lehentasun pozten zarete kontuan hartu izanaz? Zertaz konbentzitu zaituztete? Zertaz ez, eta hala ere onartu duzue, taldearen mesedetan? Gehiago kostatu al zaizu konbentzitzea, edo konbentzitu zaitzaten uztea? Maila indibidualean pozik al zaude lehentasun kolektiboen zerrendarekin? Eta maila kolektiboan?

GAKOAK

Proposamen hau gakoa da osasun-sistema publiko bat eraikitzeko zutabeei buruzko hausnarketa kolektibo bat egiteko, ondoren amesteko aukera emango duena, eta baita hainbeste jenderi eragiten dioten erabakien bidean behar den entzute-lanarekin jarraitzeko ere.

Autoebaluazioa egiteko unean, saioaren amaieran, dinamikari buelta bat eman dakiok. Zerrenda berriro irakurri, eta bakoitzak baloratu dezala zer ahaztu duen ezinbestekotzat jotzen duena, zer galdu duen negoziazioan eta denboraz horren alde borrokatuko lukeen. Edo alderantziz, zer mantentzen duen zerrendan, hori berretsiz.



5' Proposamena aurkeztea eta azaltzea.

15' (gutxieneko) entzute-errondak eta argudioak..

15' Partekatzea.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Papera eta boligrafoa
- Partekatutakoa bateratzeko arbela.
- Kronometroa, entzute ariketetan eta argudioetan denbora-mugak objektiboak izateko.

Zenbat daukazu, zenbat eskatzen duzun

Berriz diogu: Mozambiken osasunera eta osasun-sistemara bideratutako diruaren %80 nazioarteko lankidetzaren esku dago. Eraiki nahi dutenari buruz ideiarik partekatu ez duten erakunde eta organismoak dira. Zuen gai izango zinatekete, euren larruan jarrita?

Proposamen honekin beste urrats bat eman dugu. Ez dugu soilik pentsatu gure ikuspegitik zeintzuk izango lirakekeen osasun-sistema publiko bat eraikitzeko gakoak; aitzitik, abiapuntu gisa hartu ditugu osasun-sistema publiko baten eraikuntzan parte hartzen duten zenbait eragileren baldintzak.

HELBURUA

- Aurrean duguna entzuteko eta harekin negoziatzeko zailtasuna zein aukera ikusaraztea, botere-harremanak kontuan hartuta.
- Gure jarrerak eta erreakzioak esperimendatzea, arriskurik gabeko giro batean, osasun-eskubidearekin eta sarbidearekin lotutako egoeren aurrean.
- Norberaren eta besteen erreakzionatzeko eta argudiatzeko moduak identifikatzea, baita horien ondorioak ere.

DINAMIKA

Proposamena honakoa da: osasun publikoan parte hartzen duten hainbat eragileren arteko bilera antzeztea, orain independentea den eta kolonizatua izan zen herrialde batean. Eragile bakoitzak aurrekontu desberdina, osasun-sistemaren eta haren beharren ikuspegi desberdina eta askotariko eskaerak ditu, dokumentalean aurkezten dituzten moduan. 15 minutu dituzte negoziatzeko eta 500.000€ zertan inbertitu adosteko.

Proposamen honetan, gutxienez 5 boluntario beharko ditugu, eta bakoitzak rol bat ausaz hartuko du. Zenbait rol proposatzen dizkizuegu; taldearen interesen edo zailtasunen arabera, batzuk edo besteak har ditzakezue, edo aldatu.

Hona hemen zenbait pertsonaia eta haien baldintzak:

- **Osasun-ministroa [90.000€]**
Saiatu behar duzu inor guztiz gailendu ez dadin, baina dirua behar duzu.
- **Medikua [0€]**
Gehiago ordaintzen dizute osasun pribatuan. Baina osasun publikoan lan egin nahi duzu.
- **Erizaina [0€]**
Botikak falta zaizkizu osasun-zentroan. Botika gehiago nahi dituzu.
- **Mendebaldeko GKE garrantzitsu bateko ordezkaria [100.000€]**
GIBa tratatzeko dirua daukazu.
- **Mendebaldeko beste GKE garrantzitsu bateko ordezkaria [150.000€]**
Dirua duzu hiriburutik urrun dagoen eremu batean osasun-zentro bat zabaltzeko, eta diru hori inbertitzen denean «argazkia» egitea lortu behar duzu.
- **Herritarra [0€]**
Nazkatuta zaude osasun-zentrora iristeko ordu luzez oinez ibili behar izateaz.
- **Herritarra [0€]**
Zure zergak zertan inbertitzen diren jakin nahi duzu. 0€
- **Beste gobernu bateko diplomatikoak [160.000€]**
Denak ulertzen dituzu. Dirua duzu malariarako.

GAKOAK

Dinamikaren helburua ez da egoera sinplifikatzea, baizik eta gaiaren konplexutasunean lagundu ahal izatea, are konplexuagoa eginez, ezin delako kritikatu antzezten baldin baduzu.

Bereziki egokia da dinamika honen bidez osasun-programen kudeaketan bertikalizazioaren gaia ere lantzea, dokumentalean agertzen dena.

Proposamen honetan funtsezkoa da beste kideek gainerakoek erakundeak ez jakitea, eta bakoitzak bere pertsonaia aurkeztu ahala deskubritzen joatea. Partekatzeke unean, funtsezkoa da taldearen dinamizatzaileok ahotsa ematea bai aktore gisa parte hartu dutenei bai behatzen aritu direnei.

Egoki baderitzozue, taldea bitan bana dezakezue, eta aldi berean bi dinamika egin, inor ez dadin soilik behatzaile izan, eta partekatzeke unean bi edo hiru taldeen negoziazio-prozesuak aipatu.



- 5' Dinamika aurkeztea.
- 5' Pertsonaia prestatzea: argudioak, osasunari buruzko ikuspegia, estrategia, etab.
- 15' Negoziatzea.
- 10' Partekatzea: zailtasunak, erraztasunak, aurkikuntzak, etab.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- Pertsonaiak eta haien baldintzak jasotzen dituzten paperak.



Alma Ata bete izan bagenu 2000. urtean, nolakoa izango litzateke gure bizitza 2050ean?

HELBURUA

- Guztiontzako Osasunerako bidea sustatzea, distopia geldiarazleak baztertuz, *Alma Ata*-ko Adierazpenaren bidez.

DINÁMICA

Taldea 4-5 pertsonako talde txikiagoetan banatuta, *Alma Ata*-ko Adierazpenaren kopia bana banatuko diegu guztiei, eta aldi berean irakurtzeko eskatuko diegu, gelan «2001 Odisea en el espacio» filmaren soinu-banda entzuten den bitartean <https://www.youtube.com/watch?v=OnW8UK5d2CA> (hasieratik, Richard Straussen «Así Habló Zaratustra» abestiarekin hasita).

Irakurri ondoren, proposamena da talde txikietan kontakizun bat sortzea, 2050erako errealitate paralelo bat eraikiz, baina bizi dugun mundua baino okerragoa izan ordez, hobe den mundua imajinatuz: 2000. urtean Guztiontzako Osasunaren xedea lortu izan bagenu, nolakoa izango litzateke 2050. urtea?

Kontakizuna nahi duten tokian girotu dezakete, protagonistak beraien gustukoak izan daitezke; baldintza hori da premisa bakarra, eta gutxienez 500 hitz izatea. Kontakizunerako soinu-banda bat aukeratu beharko dute ere.

Amaitzeko, talde bakoitzeko boluntario banak kontakizun distopikoki utopikoak irakurriko ditu, ahal dela, aukeratutako musika jarri bitartean. Denbora bat utziko dugu parteka dezaizen zer iradoki dien errealitate berriek eta *Alma Ata*-ko Adierazpenak.

Atsegin handiz jasoko ditugu Guztiontzako Osasuna lortu duten etorkizuneko errealitate horiek, helbide honetan: documentales@medicushmani.es.

CLAVES

Distopiak modan daude, edo beti egon dira. Etorkizuna irudikatzeak jokoa ematen du. Hala ere, iraultzaileak diruditen arren, distopiek egonkortasuna bultzatzen dute gehiago, aldaketa baino, eta gogogabetasunari eta pasibotasunari laguntzen diete. Eraldaketa-helburuak ere oztopatzen dituzte, bere garaian Guztiontzako Osasun Adierazpena besteak beste. Proposamen honek buelta eman nahi dio horri, eta ekin.

Partekatzeko unean, zalantzan jar ditzakegu zenbait gauza: *Alma Ata*-k hain utopikoa dirudi? Zergatik uste duzue ez dela bete? Are gehiago, osasun publikoaren suntsipena aurrera doa, sektore pribatua hazten ari den bitartean, aberastuz.



- 5' Dinamika aurkeztea..
- 5' *Alma Ata*-ko Adierazpena banaka irakurtzea..
- 20' Partekatzea eta kontakizuna sortzea.
- 10' Partekatzea eta 2050eko errealitateak irakurtzea.

Taldearen arabera, denbora horiek gutxiegi izan daitezke. Denbora minimoaren gutxi gorabeherako kalkulua da. Horrelaxe kalkulatu dugu dinamika guztietan.

MATERIALA

- *Alma Ata*-ko Adierazpenaren fotokopiak guztiontzat.
- Wifi konexioa eta musika erreproduzitzeko bozgorailuak.

Gelditu egiten gara, aurrera jarraitzeko

Osasun-sistemei, Mozambikeri edo entzuteari eta borrokei buruz aurrez genituen ideietatik abiatuta, **A LUTA CONTINUA** ikusi ondoren gure erreakzio eta jarrerekin esperimentatu arte, zerbait aldatu al da?

Taldearentzako hausnarketa-ariketa bikoitza proposatzen dizuegu, banakakoa eta kolektiboa.

HELBURUAK

- Saioan landutakoaren inguruan kontzientzia hartzea, bai norbanako gisa, bai talde gisa.
- Osasunaren, kolonialismoaren eta gure eta herritarren bizitzetan inplikatzan duten horren inguruko ideia eta gogoeta berriak lotzea.
- A LUTA CONTINUAren saioa elkarrekin ixtea.

Dinamikak

1)

Hausnarketa banaka egitetik taldeka egitera

Hartu idatzi zenuten post it-a edo dokumentala ikusi aurreko lehen jarduerak; irakurriko ditugu edo partekatu ditugunak gogoratuko ditugu. Honako galdera hauei erantzutea proposatzen dizuegu.

- Zer gehituko edo kenduko zenuke **GUZTIONTZAKO OSASUNA**z egin zenuen definitioetik eta haren inplikazio eta ondorioetatik?
- Zehatzago, zer uste duzu egin dezakezula zuk aldaketak eragin eta entzutea areagotzeko?

Zerrendatu gutxienez lau ekintza zehatz, zure eguneroko bizitzatik hurbil daudenak; horietako bi indibidualagoak izan daitezke, eta beste biak jende gehiago behar dutenak.

EKINTZA KOLKETIBOA_TALDE TXIKIA

Beren gogoeta indibiduala idatzi ondoren, zutitu eta espazioan zehar mugitzea proposatuko diegu, eta taldean bilatzea jende gehiago behar duten ekintza berdinak edo antzekoak pentsatu dituzten pertsonak.

Elkarrekin, laburtu saioa ikusi, eztabaidatu, hausnartu eta partekatu denaren artean oinarritzotzat jotzen duzuenarekin, eta proposatu ezazue antolatutako ekintza bat partekatu duzuenetik abiatuta.

KANPAINA_TALDE HANDIA

Aurkeztu taldeari kanpaina edo proposamenak.

L

- 5' Aurkeztea.
- 5' Erantzun indibidualak.
- 5' Zure taldea aurkitzea.
- 10' Sintesia egitea eta kanpaina antolatzea.
- 10' Partekatzea.

Tiraka jarraitzeko hari batzuk

GALDERAK, EZTABAIDAK ETA KONSTELAZIOAK

Espero dugu ikusi, partekatu, ikertu eta proposatu duzuen hor ez geratzea.

Dokumental honen potentzialtasunetako bat da hainbat gai irekitzen dituela, leku askotara eraman gaitzaketenak: hari asko daude tiraka egiteko eta aurrera jarraitzeko, pentsamendu- eta ekintza-sareak eraikitzeko, osasunari buruz ditugun ikuspegiak zabaltzeko.

Horietako batzuk gidan zehar agertzen joan dira, eta batzuei nola jarraitu erakutsi dizuegu. Hemen uzten dizuegu balizko mapa edo ideia-konstelazioaren proposamena, gure galdera eta hitzekin dituzten loturekin (dokumentaleko protagonisten hitzetan egin beharrean), zeuek ere egin dezazuen, zabaltzen jarraitu eta gehien interesatzen zaizuenari begira diezaiozuen. Ziur gaude argia eramango duzuela gu iritsi ez garen lekuetara. Espero dugu galderak eta mapa hau zuentzako inspirazio-iturri izatea.

Badakizue documentales@medicmundi.es.

HELBURUAK

- Zuekin komunikatzeko bidea aktibo mantentzea eta gida bizia izatea.
- Materiala nahi duzuen bezala lantzea eta **A LUTA CONTINUA** filmean parte hartzea.
- Gida hau are gehiago zeuenganatzea.

Hona dokumentalak proposatzen dituen galdera, ideia edo baieztapen batzuk, zuen harien eta fokuen arabera plazaratu, proposatu eta landu daitezkeenak, borrokaren konstelazio edo mapa kontzeptual propioa osatzen joan zaitezten ;)

EKITATEA / BERDINTASUNA

- Gauza bera al da herrialde pobrea edo herrialde pobretua izatea? Zer da herrialde bateko «pobrezia-indizea»?
- Zergatik dago hainbeste desparekotasun herrialdeen artean? Herrialde batzuen eta besteen arteko harremanek lotura al dute desparekotasun horiekin?
- Laguntzek, beraz, azkartu edo atzeratu egin dezakete Mozambikeko demokratizazio-prozesua?
- Espainiak 1985. urtearen inguruan utzi zion garapenerako laguntza ofiziala jasotzen zuen herrialde izateari. Ba al zenekien? Zer iruditzen zaizue?
- Desparekotasun handiak gatazka armatuak sortzeko txinparta dira. Gaur egun, Mozambikeko iparraldean, pobrezia-maila handiena dagoen lekuan, eraso terroristak daude. Egoera horiek ez dituzte diskurtsoek eragiten, baizik eta desparekotasun handiek.
- Osasun-langileak eta osasun publikoaren erabiltzaileak heroi gisa, Espainiak pandemian izandako egoerari dagokionez.

MINERALEN ERAUZKETA

- Zer dira erauzketa-industriak? Aukera bat dira? Oztopo bat? Norentzat?
- Zer ekarpen egiten dio herrialde bati multinazional handiak bertan instalatzeak? Nola? Eragin lezake arriskurik herrialdean? Ba al dago hartu beharreko neurririk hori hala balitz?
- Espainian pentsatuz, multinazionalak mesede egiten diote herrialdeari? Enplegua, ingurumena, garapen sozioekonomikoa...
- Repsol, Endesa eta beste herrialde batzuetako multinazional espainiarrak gogoan hartuta, zergatik instalatzen dira beste herrialde batzuetan? Non ordaintzen dituzte zergak? Espainiak praktikatzen al du erauzketa?
- Azken urteotan, herrialdeak paradigma-aldaketa bat jasan du: kanpo-laguntzaren mendeko herrialdea izatetik, bere baliabide mineralen mendeko herrialde izatera igaro da: gasa, ikatza, petrolioia, aluminioa eta abar.
- Baliabide handien ustiapena al da Mozambikeraren etorkizuna?
- Enpresak edo landaketak dauden lekuetan argia, ospitaleak eta eskolak daude, baina hor bakarrik. Horrek arazoak eragin ditzake, hala nola migrazio-presioak.
- Multinazionalak egoitzak baldin badituzte Ingalaterran, Erresuma Batuan... han ordaintzen dituzte beren zergak. Edo orain, paradisu fiskaletan, ez dute ordaintzen ez herrialde batean ez bestean.
- Unicef: «Aukera bikaina da erauzketa-industriak Mozambikera iristea».

GKEAK / EMAILEAK

- Baldintzatu dezake herrialde baten garapen demokratikoa kanpo-ekarpenak egiten dituzten dohaintza edo GKEek? Nola? Osasunerako eskubidea edo estatuen burujabetza.
- Urtean 300 milioi dolar ematen dituzte nazio mailako eta nazioarteko GKEek Mozambikeko 24 milioi pertsonarentzat.
- GKEak inplikitzen al dira Mozambikeko Osasun Ministerioaren Plan Estrategikoan?
- GKEek edo emailleek osasun-zentro bat eraikitzen dute argazkirako, baina nork ordaintzen ditu medikuak, erizainak, sendagaiak?
- 30 emaille handien artean, 8k edo 9k ordezkutzen dute Mozambikek osasun-gaietan jasotzen dituen funtsen % 80-85.
- Zeintzuk dira GKEen lehentasunak? Eta emalleenak?
- Emalleen artean, nola artatzen dugu mendebaldetik garapenerako lankidetzat?

OSASUN PUBLIKOA / OSASUN PRIBATUA

- Espainian, nondik ateratzen da osasun publikoari eusteko dirua? Zer ehuneko da osasun publikoa eta zer ehuneko da osasun pribatua?
- Zenbat herrialdek dute osasun publikoa?
- Medikuntza publikoa eta landa-eremuko medikuntza. Zer arazo daude testuinguru horietan? Errentagarritasuna?
- Espainian mediku 1/250 biztanle, Mozambiken mediku 1/25.000 biztanle: sistema publikoan 980 mediku daude herrialde osoan.


- Osasun publikoa biztanleriaren %40 da, etxetik ordubetera baino gutxiagora osasun publikoko instalazio bat duena; osasun pribatua, berriz, %60.
- Orduan, pobreentzako eta aberatsentzako bereizitako sistemak egon behar dira?
- Alma Ata-ko 1978ko Adierazpenaren aurka al dago osasun publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa eta pertsona guztiak artatzeko bermerik eza?
- Gaixotasunak: malaria, desnutrizioa, GIBa, tuberkulosia. Zein izango litzateke gure lurraldeko gaixotasunen zerrenda?
- GKEek medikuak dituzte, enpresek medikuak dituzte, klinika pribatuek medikuak dituzte, osasun-sistema publikoak EZ
- Nork zehazten ditu Mozambikeko osasunaren arloko garapen-lehentasanak? Eta gure lurraldean?
- Emaille guztien artean, osasun-ministerioak jartzen duena baino diru gehiago ematen dute. Osasun publiko edo pribatu bihurtzen du horrek?
- Bertikalizazio kontzeptua: Nondik ateratzen dira programa bertikal horiek? Nola eguneratzen da hori gure osasun-sisteman? Osasun-sisteman dirurik jarri gabe gaixotasunak tratatzea, epe laburrean, ez da jasangarria.
- Adibidez: AEBk malariaren aurakako programa bertikal batean inbertitzen badu, eta horretarako Mozambikera farmakoak eta eltxo-sareak bidaltzen baditu, inbertsioaren zati bat bertan geratuko da, malariaren aurkako botikak egiten dituzten enpresa farmazeutikoetan.

KOLONIZAZIOA

- Zertaz ari gara kolonizazioaz ari garenean?
- Ezagutzen al duzu kolonizatutako herrialderik? Eta herrialde kolonizatzailearen bat?
- Beste herrialde batek kolonizatzen multinazionalak kolonizatzen pasatu al gara?
- Transnazional handien kokaleku itxi horiek: kolonizazioaren modurik nabarmenena direla uste da?



Agurra eta itxiera



TALDEA

NORAY KOLEKTIBOA

Guretzat, osasun publikoaren sistemari buruzko hausnarketa-bide bat izan da hau, eta horrek orainarekin ez ezik iraganarekin duen loturaz ere hausnartzeko. Oraingo uneaz eta irudikatu nahi dugun etorkizunaz kontzientzia hartzeko aukera bat. Eta, batez ere, aitortza bat entzuteari eta negoziatioari.



medicusmundi

medicusmundi
Elkarteen Federazioa Espainian
Lanuza, 9, local
28028 Madrid
Tel. 91 319 58 49 / 902 101 065
Fax 91 319 57 38
federacion@medicusmundi.es
www.medicusmundi.es

medicusmundi
Mediterrània
mediterrania@medicusmundi.es
934 184 762

medicusmundi
Sur
sur@medicusmundi.es
958 135 070

medicusmundi
Norte
norte@medicusmundi.es
985 23 22 27

medicusmundi
Araba
alava@medicusmundi.es
945 28 80 31

medicusmundi
Navarra-Aragón-Madrid
nam@medicusmundi.es
948 131 510

Finantzaketa



continua